



Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguru**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Deirtzen

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2007ko urtarrila
95. zkia. Doan

Hiri koloreduna
Eloy Garcia zilargina
Sei Izar Herri Krosa



Josu Martinez

*"Martin telesaileko arduradunek
konfiantza handia izan dute nigan"*




Oskorri Santutxun (1973)

Orain dala gitxi egin dau ospatu Oskorri taldeak bere 35. urteurrena. Sortu, 1972an sortu zan, Natxo de Felipe, Antton Latxa eta konpainiaren eskutik. Sasoi hartan Gabriel Aresti euki eben inspirazio iturri nagusi eta inork be ez eban pentsauko hain karrera luze eta emonkorra egingo ebenik. Argazkikoa Santutxun egindako kontzertua da, 1973 urtean. Galdezka ibili gara eta baleike Maristetan egindakoa izatea. Atzean, Santutxuko Familia Elkartearen logoa dago, begi bistan. Eurek antolatu eben, sasoi hartan kultur arloko kontu asko be familia elkartearen gerizan egiten eben eta. Inork jakingarri gehiago baleki, gustura entzungo gendukez.

Argazkia 'Oskorri. 111 kantu' (1990) liburutik hartuta dago.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Hiri koloreduna	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Mendia: Beratza	25
▶ Herrira plataforma	10	▶ Sei Izar Herri Krosa	26
▶ Eloy Garcia zilargina	12	▶ Oliba Gorriak	28
▶ Elkarrizketa: Josu Martinez	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19		

Honeik Bertonekoak dinostie hiliien-hiliien egiten doten modure kontateko Bertonek zer dakarren. Rebistie ikusitte, portadan mutil musiko-kantante-artista ifini daurie, telebisiñoan urteten dabena, ta han baten batek eskatute kanziñoa inbentaten dau atoan ifinten dotzien kontueri edo pertsonieri. Total, oingoan pentsau dot neuk kontau beharrekoan, horeri mutileri enkarguak ifiniko dotzatezela Bertonen urteten daurien kanziñoa egitteko.

Holan lehenengo kanziñoa ein biher dotza Iturribideko plateroari. Bertonekoak diñoie Bizkaiko azkana dala, urrezuridxe be gitxi lotuten jaku ba! Oin Titanioa da halangoak eroaten direz. Kanziñoa egitteko ez daittelala hasi "...ez diamante, ez perla, ez urrezurixe,...". Hori plagidxoa izingo littike ta.

Hurrungo kanziñoa dedikauko dotzagu etxetako hormak pintaten dabizeneri, ta gehidxen baten horreik koloreak elejiduten daurien. Hamen ez dau balio harek bilbainadiak "...de colores se viste...". Ta daltonikoakaz akordaten bada hobeto. Lehenengo kanziñoan kontrapuntue ba ixin lei: bateko dana titanioagaz forrau, ta besteko partxise.

Beste bat. Hau generikoa ixin lei: kartzelak, presoak, juizidxoak ta halangoak. Ze, oingoan Bertonen tema errekkurentiek direz: han urrun dekoguzenak, hamen kalien erdidxen jazarri egiteagaittik idxe kartzelara eroan daurizenak, lehenago hamengo kartzeletan garbitu zeurizenak... prisiño kontuetarako tema libre! Ta "El preso numero nueve" harek ez dosku balio. Bederatzi baino numero handidxeagoak darabiguz-ta.

Batzuk barruen, idxe mubidu be ezinik, ta beste batzuk parau ezin. Santutxuko aldatz guztidzek bata bestien ostien karran egiten daurizenak ez dakitt kanziñoa. disjokeidxe ala bandamunizipalan

rezibimientoa mereziten daurien. Danak batu ta halango jam-sesiona ein lei iguel. Hori artistien esku itxiko dogu. Hori bai, Korrika-na ez deiskule ekarri, haregaz datorren hiliien eukingo dogu bastante.

Kanziñoak eitten dauriezeneri be ein leidxe kanziñoa. Ez demostratuko kanziñoak zelan eitten direzen, estilo diferentiek dagoz, ta ondo egongo littike kantautoriek rockeroen kanziñoan bertsitxioa eittie da bizebersan. Hori da permitiduko dogun bertsitxio bakarra.

Ta akabetako, azkanango kanziñoa korala ixin behar da. Ikastolako umientzat, dabizenak lehenengo olgetak ikisten euskerie mejorateko. Euskerie mejorau biher bada, berba ein biher da, eta olgetan zabizela kontzentraute bazabiz berba asko ezin da egin. Orduen, sikieran, kantau ein deidxela.

Honeikaz kanziño guztidzekaz eingo dogu diskoa ta Bertonekeri emongo dotzegu publikau deidxen ta hurrungo Bertonegaz emoteko. Hau bai nobedadie, errebstie eskribidute ta kantaute. Antxineko meza kantauek egitten zireneti ez da halangorik ikusi. Hori de hori ImasDe!

A! ta iake diskoa atako daurien, honeiri mutileri, ondo kantaten dau ta, esan Begoñeko Santa Agedan bertsitxio bat sartuteko, harek datorren domekan eskien ibiliko direzeneri plaibaka egin deixen. Ze, batzuek kantaten daurien modure kantaute dirue eskatute be! Gero pentsaten daurie txorizoa ondo kantateagaittik emoten dotzela. Ez jauna! Jan bittartien ixilik egoteko emoten dotzue! Gurera eskien etortzen bazarie afindu, ze....

Ta deretxosdeautorrena aittatu be ez. Hamen dana da danona, kebibalarrebolusion! Euuuuuuuuup!

GURE BAZTERRAK

JUAN GISASOLA KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Boluetan aurkintzan dogu Juan Gisasola kalea; izan bere, kale honek batzen ditu zezenero Cocherito Bilbokoaren kalea eta Bilbo-Galdakaoko errepidea.

Kale honek izen hau daroa 1972. urtea ezkerro, eta izena jagoko Juan Gisasola Bilbao pilotari ospetsuari.

Juan Gisasola Bilbao jaio zan 1890eko abuztuaren 25ean Bilbon, eta "Begoñés I" ezizenez ezaguna izan zan; egin-eginean bere, berak emon eutson hasiera Begoñestarren endari. Beraren pilota-hasiera Begoñako eleizateko Zabalbideko pilotalekuan egin eban bere aita Anton eta aitita Gabriel Mataren zuzendaritzapean. Hamabost urte eukazala jokatu eban bere lehenengo partidu profesionala, eta hasieratik erabili eban "Begoñés I" ezizena.

Berak palan egiten eban, gorengo mailako pilotaria izan zan, eta ezin konta ahala arrakasta jadetsi zituan Bilboko "Euskalduna" pilotalekuan, besteak beste. Esan behar da, garrantzitsua dalako eta jende gitxik dakialako, bera eta beraren anaiak izan zirala lehenengoak pala-jokalari profesional legez jokatzeko. Hori ezeze, erremontean bere egiten eban. Jakingarri horrek adierazten deusku gaur egun Euskadiko zazpi lurraldeetatik Gipuzkoako eta Nafarroako eskualde batzuetara mugatzen bada bere, aresti arte Euskadiko lurralde gehiagotan egiten zala.

GOTZON LOBERA REVILLA



ZURI BELTZEKO HIRIAN...



Industrializazioak hiri bilakatu zituen Bilbo eta albo-herriok: Abando, Deustua eta, jakina, Begoña. Hiri moderno, industrial, burgesa bazter batzuetan eta behargina beste askotan. Baina lantegi eta meategien abaroan sortutako hiri hura grisa zen, zuri beltzean irudikatuta eta gauzatuta. Gaur egun hiri hura gero eta urrutiago dago eta grisak nagusi ziren lekuetan koloreak hasi dira agertzen...

Testua: H. O.
Argazkiak: Iñigo Azkona



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Díez,
Eneritz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez
Ane Zabala

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Ane Zabala
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

...mini koloreduna sortzen hasi da



mugimendu horren hasiera. "Sasoi hartan Frantzian hasi ziren etxeetako aurrealdeak zaharbertzen. Geroago, Torinon 'carta del colore' zabaldu zuten, eraikinek euren jatorrizko koloreak errekupezko ahaleginean". Bide horretako beste munarri bat Bartzelonak paratu ei zuen 'Barcelona possat guapa' (edertu Bartzelona) kanpainarekin. Kataluniako hiribuan 'kolorearen kabinetek' sortu dituzte, eraikin zaharretako jatorrizko koloreak zehazteko eta berriz egiteko gauza direnak.

Harrez gero kolorea lau haizetara zabaldu da, "gehiegikerietara ere bidea emanez", zehaztu du Uriartek. Baina orokorrean, esan digu, "koloreak nortasuna ematen du".

Gauza jakina da kolorea herri edo hiri batzuetako nortasun estetikoaren parte dela. "Gure kostaldeko herrietan gorria, urdina, ... zuriarekin batera bertako ondarea dira. Gustu txarrekoa izango litzateke bertan etxe hori bat altxatzea".

Begoñako auzoetan Uriartek ez du gehiegikeriarik topatu. "Ez zait gustatu Salbeko zubiko zutoinak horiz eta berdez pintatu izana. Campo Volantineko hotela, ostera, egokiago ikusten dut". Jende askoren argazki makinaren helburu bilakatu da aurrealde koloretsu hori azkenaldion.

Azken aholku bat, adituaren iritziaren laburbilduz: "Printzipioz, kolorea bai, baina kontu handiz. Tentuz. Zuhur jokatu. Hori bai, kalte egin ezker, kolorea da kalte gutxien egiten duen eraso", gogoratu du Iñaki Uriartek.

Koloreak gurera bueltatu dira. Ez dira txakolindegietako mahats orrien berdea edo baserrietako teilen gorria, horiek ez baitira atzera etorriko. Beste batzuk bai, ostera, ibaiertzeko goroldioaren berde bizia, barbarako, Campo Volantineko kaiko harrietan sendo atxikita. Baina horiek kolore naturalak dira. Eta horiez gain, gure hiri bazterretan kolore artifizialak ere agertzen hasi dira, arkitekturako osagai gisa.

Izan ere, fenomeno bi gertatzen ari dira batera. Alde batetik, urtetan galduta egon diren etxe askotako aurrealdeei lohia eta zikina kendu eta, behin garbituta, kolore biziez margotu dituzte. Horrela gure begiek ezustean eraikin ederrak topatu dituzte urte askotan forma ilunak besterik ez zeuden lekuetan.

Bestetik, kolorea arkitektura lan egin berrietan osagai erabakigarria bilakatu da. Plaza, monumentu eta eraikin berri askotan gorriak, horiak, berdeak, urdinak edo moreak nagusi izaten dira. Gure ingeles estiloko hiri serio zuri-beltzean arrakala koloredunak agertu dira.

Ikustea besterik ez dago, adibidez, Salbeko zubirako onartu duten proiektua, bere goialdea arku gorri batez estali gura duena. Edo Campo Volantinen bertan Hesperiak eraiki duen hotela. Bere leiho bakoitzak kolore bana erakusten du, aurpegi multikolorea emanez itsasadarrari.

Begoñako kostaldetik barrualdera jo ezker, Txurdiñagako Garai lorategiak ere ikusgarriak dira kolorazio aldetik. Gaudí zenaren estilo modernistari jarraiki, plazako bazterrek kolore biziko zeramika zatiez osatuta daude. Kolore uharteak gehiago dira gure lehorrean: Solokoetxeako etxeak, barbarako, guztiz aldatuta daude aurrealdeak pintura biziez busti zituztenetik.

Iñaki Uriarte arkitekto mahatsorriak 1970ko hamarkadan seinlatu du

2007ko urtarrila - 95. zkia.



BEGOÑA ETA EUSKEREA

Urtarrilaren 4an 70 urte bete ziren Begoñako errepublika zaharreko lau kartzelatan 224 lagun hil zituztenetik. Herritarrek eta miliziarrek akabatu zituzten, amorruren amorruez, Francoren hegazkinek Bilbo bonbardatu ostean.

1937KO URTARRILEKO SARRASKIA BEGOÑAKO KARTZELETAN

Espainiako Gobernuak Memoria Historikoaren lege proiektuarekin atzera eta aurrera dabilela, 70 urte bete dira antifaxistek Bizkaian egindako sarraskirik handienaz. Gurean gertatu zen, Begoñako errepublika zaharrean, gure bazterrotan baitzeuden sasoi hartako kartzela edo kartzelarena egiten zuten eraikin guztiak: Larrinagako kartzela, Galera etxea, Angeles Custodios ikastetxea eta Karmelo. Berrehunen bat lagun hil ziren herritar eta miliziar amorrutuen eskuetan.

1937ko urtarrilaren 4ko goizean Francoren 21 hegazkin -bederatzi bonbaketari eta hamabi ehiza-hegazkin- Bilboko zeruan agertu eta lehergailuak jaurtitzeko hasi ziren. Arratsaldean ere beste horrenbeste egin zuten. Hegazkinetarik asko alemaniarrek ziren, Kondor Legioak hain zuten. Apirilean Gernika birrindu zutenak alegia.

Gerra hasi zenetik Bilbo gaineko bigarren bonbardaketa handia zen hura, herritarrek beldurtzea beste helbururik ez zeukana. Lehenengoa, irailaren 25ekoa, eskuindar espainolisten kontrako erasoak eragin zituen: Cabo Quilates, Arantzazu Mendi eta Altuna



Karmelon hamarnaka eskuindar zeuzkaten preso.

Mendi espetxe-barkuak asaltatu eta hamarnaka lagun hil zituzten herritar eta miliziarrek.

Urtarrilaren 4ko bonbardaketari, irailakoari ez bezala, berehalako erantzuna eman zioten airean bertan. Zortzi ehiza-hegazkin azaldu ziren eta etsaien hiru abioi lurrera bota zuten. Bilbon bonba gehienak Artxandako hegietan

eta Iturribiden jausi ziren. Bonbardaketa amaitu zenean, jende tropel handi bat, amorruren amorruez, manifestazioan joan zen Bilboko kaleetatik barrena. Alemaniarrak pilotu baten -Adolf Hermann- gorpua zeramaten -hegazkinetik salto eginda onik heldu zen lurrera baina bertan akabatu zuten- eta preso hartutako beste bat eskatu zuten Gobernazio sailaren egoitzaren (Sociedad Bilbaina) aurrean. Barne sailburu Telesforo Monzonek (EAJ) lasaitzeko eta sakabanatzeko eskatu zuten manifestariei. Jaramon egin barik, multzo handiak Begoñako kartzelatarako bidea hartu zuten.

Lekukoaren arabera, tropel nabarra zen hura: Gipuzkoatik etorritako errefuxiatuak, emakume asko -sutsuenak, batzuen iritziz-, gudari eta miliziarrek nahastean. Ideologia askotako jende moduak, beraz.

Arratsaldeko bostetan Karmelo, Angeles Custodios, Galera etxea eta Larrinagako kartzela asaltatu zituzten. Presoak hartu eta fusilatzen hasi ziren.

Sarraskirik handiena Angeles Custodios ikastetxean gertatu zen. Bertako 190 presoetarik 109 fusilatu zuten, gehienak etxe ondoko pabilioian eta beste asko sARBIDEKO patioan. Handik hurbil, Larrinagako kartzelan 56 pertso-



Robert Caparen argazki ospetsua: Bilboko Areatza etsaien hegazkinen zemaipen.

na hil zuten, Galera etxean 53 eta Karmelon 6. Horiexek dira Jose Luis La Granja historialariak batutako datuak.

Jose Antonio Agirreren gobernuaren eta, batez ere, Telesforo Monzonek jokoera auzitan jarri izan dute batzuek eta besteek. Edozelan be, argi dago ez zutela hartu hur-hurrean zeuzkaten kartzelak zaintzeko erabaki eragingarririk. Itxura denez, Defentsa sailak EAJko gudari gutxi batzuk bidali zituen, baina alferrik. Geroago Telesforo Monzonek Ertzaña ere ailega zen, baina ez zen hilketak geldiarazteko gauza izan. Jaurritzak Asturiaseko batailoio bat ere igorri zuten, UGTrena, baina erabaki okerra izan zen, miliziar horiek edo geldi-geldirik lotu edo sarraskira batu ziren eta. Hilketak ez ziren amaitu kartzelatan Telesforo Monzon bera, Juan Astigarria (Alderdi komunista) eta Juan Graziarekin (PSOE) batera agertu zen arte.

Gertakizunok astindu itzela eragin zuten Eusko Jaurlaritzan. Monzonek postua kolokan egon ei zen, baina azkenean eutsi egin zion. Epaila berezia izendatu zuten arduradunak bilatu eta auzipetzeko, Julio Jauregi (EAJ) hain zuten ere. 61 lagun jarri zituen auzi bidean, baina gerrak berak eten egin zuten prozesua.

Hildakoen artean abadeak eta elizgizonak ez ziren gutxi izan (22ren izenak publikatu dituzte). Gainerakoak Bizkaiko eta Gipuzkoako eskuindarrak -monarkiko, karlistak, faxistak-, gehien bat.

MEMORIA HISTORIKOA

Errebisionismoa eta erlatibismoa nagusi diren sasoi postmoderno hauetan, bortizkeria guztiak 'teorian' berdinak direnean -praktikan ez, jakina-, boterearen bozgorailuek egiazki ez dagoela

ozen zabaltzen dutenean, Begoñako kartzelatarako sarraskiak munizio gisa erabili dute helburu jakin batekin: erakustea 1936ko gerran bortizkeria bando biek erabili zutela. Horren ondorioz, batzuk eta besteak igualak izan ziren eta ez dago zertan ibili duela 70 urte hildakoak lur azpitik ateratzen.

Pelloren egia da gerra guztietan bando biek eragiten dituztela hildakoak, basakeriak, krudelkeriak. Baina zibilen kontrako bortizkeria eta arrazoi politikoez eragindako bortizkeriak aztertu ezker, 1936ko gerran, Hego Euskal Herrian behintzat, badago alderik. Alde nabarmena. Cabo Quilatesen edo Larrinagako kartzelan presoak hil zituzten bai, baina ez agintariek eratu, sustatu eta babestutako operazioetan, herritarrek edo soldaduek une jakin batzuetan eta amorru biziz euren kabuz egindako asaltoetan baina.

Horrek ez dauka antzik ere ez, Mola jeneralaren agindupekoek herriz herri eragin zuten erreprosi sistematikoa, krudel eta erruki bakoarekin. Nafarroako herrietan -gerra frontierik gabeko herrialdean- 3.000tik gora hildako eragin izana horren frogarik nabarmena da.

Eta Begoñako kartzelatarako hilketak ezin dira Gernika edo Durangoko bonbardaketekin parekatu, beste batzuek egin duten bezala. Durangoren kontra 12.000 kilo bonba jaurti izana taktika militar jakin bati erantzuten zion: lehenengoz historian herritarrek helburu militar gisa hartuta, ikara eta beldurra sortzeko suntsiketa orokorrak izan ziren. Eta hori, hori ez zen izan gure kartzelatan gertatu zena.



Halderapeko
euskal kultur gunea

www.halderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



HAMAR URTE PRESOEN ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEN

Santutxuko Herrira plataformak bere sorrerako
agiria eta atxikimenduak berriitu ditu

Hamar urte bete berri ditu Herrira plataformak. Azken hamarkadan Santutxuko preso politikoaren eskubideak aldarrikatu ditu ehunka lagun eta elkartearen atxikimenduaren babesaz. Gainera, hilero-hilero, hutsik egin barik, manifestazioa egin dute auzoko kaleetatik.

Testua: **Itxaso Perez**
Argazkiak: **Berton**

Iragan urrian bete zituen hamar urte Herrira plataformak. Hamarkada bat gizarteratze lanetan eman du eta oraindik horretan badabil Santutxuko preso politikoaren eskubideak kaleratzen hilero bigarren ostiralean. Begoñan eta Bilbo osoan bakarra da.

Duela hamar urte Euskal Herriko egoera ez zen batere samurra, eta presoaren eskubideen urraketak hain ziren larriak ezen pertsona talde batek hori gutzia Santutxuko herriari jakinarazteko plataforma bat osatzea erabaki zuen. Plataforma horrek ideologia eta pentsaera ezberdinetako jendea eta taldeak gai honen inguruan biltzea zuen helburu, ahalik eta zabalena egitea hain zuzen, bakoitzak bere ikuspegitik ekarpena egin



zezan. Horrela, auzoan mugitzen ziren talde guztiekin berba egin eta talde gehienek bere atxikimendua eman zioten plataformari.

Era berean, mobilizazio eta gizarteratze dinamika iraunkorrari ekin zioten. Hala, hilero bigarren ostiralean manifestazioa antolatzen dute Santutxuko kaleetan. Bertan beti lelo bat duen pankartaren atzetik doaz plataformaren deialdiari erantzuten diotenak. Leloa, 'Euskal

Presoak Euskal Herrira'. Baina ostiral bakoitzean atxikimendua eman duen talde edo elkarteetarik bat joaten da pankartari eutsiz, eta talde bera da manifestazioaren amaieran presoaren eskubideei buruz bere ikuspegia emango duena. Esaterako, martxoan emakumeen taldeak hartzen ohi du konpromisoa, Martxoak 8ko datarekin bat eginez. Bestela, EHUko irakasle kaleratuen taldeak, mendi taldeak, gazte asan-



bladak... eta horrela hamabi hilabeteetan zehar.

1996an Batera plataforma sortu zen, eta Santutxuko Herrira apur bat ildo horretatik zihoan. Baina Bateraren ibilbidea laburra izan zen, eta Herrirak duela hamar urte egin zuen idazkia berrikusi eta berrizteari ekin diote azken hiru hilabeteotan. Horretarako abenduan batzarra bildu zuten.

Egun landu dutena Ibaetako Foroarekin bat eginez doa. Presoen egoera eta baita euren senide eta lagunen inguruko laburpena egin ostean, Estatu espainoleko zein frantseseko gobernuetara hainbat eskaera egin dizkiote.

Azken asteotako gertakariak ez dute eraginik izan euren dinamikan, plataformako jendeak berdinez du aldarrikapenei eusten. Plataformako bozemai-le baten iritziz, "gizarteratze lana ondo egin izanaren ondorioa da: jendeak eskubideena barneratuta daukako". Egoera hauek eta eskaera horiek kaleratzea eta gizarteratzea izaten ari da urritik hona burutu duten ildoak, atxikimenduak lortuz, batzuk lehendik zeudenak baina denbora tarte honetan sortu berriak direnak ere. Datozen asteetan edo hilabete gutxi barru egindako lan honen emaitza plazaratuko dute, bai kaleetan banatuz edota etxez etxe helaraziz. Dena dela, ez dira horretan geldituko eta atxikimendua landuz segituko dute gizarteratze lanekin batera.

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

700 euskal herritar inguru daude kartzelan, "terrorismoaren aukako borroka" deitutakoak eragindako salbuespen arauen ezarpena dela eta. Espetxeetako egoera okertzen ari da. Preso gehienak (% 98'5) Euskal Herriatik kanpoko espetxeetan dago, Espainiako eta Frantziako gobernuak ezartzen duten sakabanaketa politikoaren ondorioz.

Sakabanaketa beraien legearen eta presondegiko oinarriko tratamendu ororen aurka doa. Preso daudenekiko zein beraien senide eta inguru sozial eta politikoarekiko mendekuan eta xantaian oinarritutako erabaki politikoetan oinarritzen da.

Sakabanaketak preso dauden lagunen bizi baldintzak gogortzen ditu, zigorra senide eta inguruko pertsonetara zabalduz. Izan ere, preso dagoen lagunarekin denbora labur batez egon ahal izateko izugarriko esfortzua suposatzen du, bai denbora aldetik, bai espetxeetara joateko egin behar diren bidai luzeek suposatzen duten arriskuen aldetik eta baita horrek guztiak suposatzen duen dirutzagatik ere. Honako datu hauek esandakoa berresten dute:

Bataz beste, presoak Euskal Herriatik 724 kilometrotara daude.

Bisitak burutzeko urtero batezbestekoa 13.812 eurokoa da presoaren senideentzako.

Presoak bisitatzeko desplazamenduetan hildakoak 16 lagun izan dira gaur arte.

Egungo Espainiako eta Frantziako gobernuak kartzela eta zigor arloetan aurreko gobernuen ildo bera darimatela salatu beharra dago: zigorren gehitze, sakabanaketa, isolamendua, komunikazioen murrizketa, gaixo dauden presoaren eskubideen urraketa, presoaren hezkuntza eskubiderako eta euskararen erabilerako trabak jartzea, espetxe zigorraren iraupenaren murrizketarako aukeren ezabatzea, legeak onartutako mendeen aplikazioaren murrizketa kartzelatik ateratzea eragozteko asmoz... Neurri horiek batetik, espetxeetako bizi baldintzak gogortzea bilatzen dute, eta bestetik, preso dauden lagunen espetxean igaro behar duten denbora ahalik eta gehien luzatzea da.

ATXIKIMENDUAK

Batasuna, EA, Aralar, Askatasuna, Etxerat, Gurasoak, Segi, Santutxuko Gazte Asanblada, Iduna, Ernai, Ikasle Abertzaleak, Asapala, Santutxuko AEK, Euseria abesbatza, Gaztedi dantza taldea, Santutxuko mendi taldea, Cantharelus mikologia elkarte, Eguzki, Kakitzat, Santutxuko Familia elkarte, EHUko irakasle kaleratuak, Oinarriko kristauak, Bagabiltza, Herria 2000 Eliza, Garoa txokoa, Artagan kultur elkarte, Ibarsusi futbol taldea, Santutxuko hockey taldeko lehendakaria eta lehen taldeko jokalariek, Santutxuko Jai Batzordea, Karmelo ikastolako 13 langile, Kaixo guraso elkarte zuzendari eta idazkaria, Josu Martinez, Julio Ibarra, David Barbero, Aitziber Laskibar, Irune Berro, Iratxe Ruiz, Arrate Diez, Bego Kapape eta Joseba Macias kazetariak, Roman Lander eta Patxi Urizarren elizgizonak, Angel Zelaieta eta Urtzi Urrutikoetxea idazleak, Iñaki Goioaga, Kepa San Pedro, Jabi Erize, Felix Cañada, Haizea Ziluaga eta Txema Azkuenaga abokatuak, Gaizka Salazar eta Unai Bergara musikariak eta Asun Landa eta Tasio Erkizia irakasleak.

AZKEN ZILARGINA

ITURRIBIDEN EGITEN DU LAN ELOY GARCÍAK,
ZILARRA LANDU DUEN AZKEN ARTISAUUA

Bizkaian, eta agian Euskal Herri osoan, gelditzen den zilargin eta zizelkari bakarrak Mahatserriko Iturribide kalean du bere tailerra. Eloy García Santurtzin jaio zen baina hamalau urte zituenetik Iturribide kalearekin lotura handia izan du. 1940. hamarkadan lantegiz beteta zegoen kalea zeharo aldatu da baina Eloy García, jubilatuta eta gero ere, antzinako arteari eusten dio bertan.

*Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Eloy García klasikotzat du bere burua arteari dagokionean behintzat. Bepizkundeko artisten antzera, berak ere eskuz egiten ditu bere arte lan guztiak, hasierako diseinuaren marrazkietatik hasita forma emateko beharrezko ukitu eta kolpe guztiak jo arte. "Nik gaur egun egiten dudana Italian XV. mendean Cellutik egiten zuenarekin antza handia du, dena klasikoa egiten baitut nik", nabarmen-

du du artisauak. Baina Eloy artearekin edota artisautzarekin zer ikusirik ez zuen familia baten jaio zen Santurtzin. "Aitak Labe Garaietan egiten zuen lan, eta hil eta gero, nik bost urte nituela, amak denda bat jarri zuen eta bertan berak egiten zituen farfailak saltzen zituen. Seguruenik, amaren eskulanok dira nire familian artisautzarekin parekatu ahal den lan bakarra", kontatu du García.

Baina gaur egun bere zilargintza lanengatik ezaguna bada ere, bere lehen zaletasuna margotzearena izan zen. "Bederatzi eta hamalau urte bitartean Santurtziko Santa Eulaliako Patronatoan egon nintzen barne ikasle modura. Han marrazketa irakasten zigun moja bat zegoen eta ni berari esker ikasi nuen marrazten. Jolastorduetan ere marrazketa egiten gelditzen nintzen, hainbeste

gustatzen zitzaidan. Nire ikaskideei ere ikasturteko azken lanen azala egiten nien eta eurek, esker onez, Mamarigako soloetako barazki eta fruituak ekartzen zizkidaten", gogoratu du.

Urte horietan jasotako prestakuntza garrantzi handikoa izan zen Eloyrentzat lan mundura hurbiltzeko orduan, hain zuzen bere lehen lantokia izango zen Lámparas Navarrok sarrera froga gainditu eta lehenengoz Iturribide kaleko lantegira hurbildu baitzen. "Ez dut sekula ahaztuko azterketaren egunean, oraindik hamabost urte bete gabe nituelarik, anaiak zelan eraman ninduen sorbaldara igota tranbiatik Iturribide eta Prim kaleen arteko fabrikara, ni orduan belaunean lesio bat nuelako."

Han brontzeztaketa lanetan jardun zuen batez ere, baina bere arte trebezia agerian laga zuen eta horren erakusle argia da Espainiako lehiaketa bat irabazi zuen mailuz landutako platera. "Brontzez egindako plater mitologikoa zen. Hain polita zen urrea ematen zuela eta lehiaketa irabazteagatik orduko 500 pezeta eman zizkidaten. Geroago erakusketa batetik lapurtu egin zuten eta ordainean gobernuak beste 600 pezeta eman zizkidan" esan du García.

Lehiaketak ekarritako ospeak atek zabaldu zizkion, baina ez bera nahi zituenak. "Nire ametsik handiena San Fernandoko Arte Eskolara joatea zen" baina orduan



Basurtuko Artes y Oficios eskolara joatearekin konformatu behar izan zen. Hara lanetik irten eta bi orduz joaten zen egunero.

1940 hamarkadaren amaiera zen eta Eloy Iturribideko beste lantegi batera aldatu zen, Objetos de Arte Villanueva; baina lantegi horretan ere, Eloyk ezin izan zuen bere artista zena asetu, egokitzen zitzaion lana galdategiko burdinen arteko loturei berriro forma ematea baino ez zen. Ezin zuen orduko Eloy gazteak bereri gehien gustatzen zitzaiona egin: zizelkatu eta mailuz landu.

LEHEN ARTE LANA

Bere sortzeko grina horrek Eloy lantegia utzi eta bere kabuz lanean hastera bultzatu zuen. Bere amaren Portugaleteko etxeko balkoian eman zituen Bilboko zilargintza lantegietatik (Metalaria Artística, Industrial Orfebre,...) egiten zizkio-

ten eskaerak. Eta orduan, hamazortzi urte bete gabe zegoela, bere arte lanik garrantzitsuen egiteko enkargua heldu zitzaion. Barakaldoko San Vicentek pasio irudi baten karroza egiteko lehiaketa zabaldu eta Eloyk irabazi zuen. "Ni hain gaztea izateagatik gai izango ote nintzen zalantza agertu zuten askok. Baina orain zilarrez eginda dagoen pasio irudi bakarra da eta nik egin nuen oso-osorik. Diseinua Portugaleten egin nuen eta gero soto batean eraiki. Muntaiak Bilboko Metalarian egin behar izan zuten hain zen handia! Nik egin nuen osorik, zizelketa, bozelketa, dena".

Gaur egun, eta Iturribideko Pasio Irudien museotik lapurtuko ote zuten beldurragatik, Indautxuko Jesuitetako egoitzan gordetzen da, hango Aste Santuko Kofradiak ateratzen baitu urtero.

Eloy García harro gogoratzen du

Agapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiozko dekorazio deribatutak
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1. ezk
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko *Iturriaga 96.*
herriko taberna

Gosari bereziak:
Kalea + pintxoak 1,50 €.



Euskal Herria
AURRERA!!



JESUS GALINDEZ, N.º 10
TELF. 94 477012-9500 GARAZAR - BILBO



lan hori "artean nire lan guztiak industrialak izan zirelako, baina hori arte lan hutsa zen. Ez dut uste hain gazte horren lan osoa egin duen artistarik egon denik nire arloan."

Urteak aurrera joan ahala bere Iturribideko lehen tailerra 39. zenbakian zabaldu zuen, eta urte guzti hauetan, orokorrean enkarguz egiten zizkioten modeloak asmatzen zituen, gero industrian errepikatzen zirenak. Urte askotan altzairu grabatzailea izan zen, den-dena artisa modura eginez. Bere esperientzia eta fama handitzen joan zen eta horrek marrazketa irakasle ere bihurtu zuen. Tailerlean ikasleak izan ditu. "Asko bitxigintzan aritzen dira orain baina egia esan nire lanak bakarrik egin nahi izan ditut beti, oso arte lan pertsonalak baitira.". Iturribideko 51. zenbakian, gaur egungo bere tailerlean, hama-bost urte eman ditu.

OMENALDIA

Ibilbide aipagarri horrek 2006an omenaldia ekarri zion. Bizkaiko Foru Aldundiak zilarginen munduaren inguruan egindako erakusketa baten Bizkaian gelditzen den

azken zilarginaren tailerrari aparte-ko arreta eman zion. Egunero Eloyk bi ordu ematen zituen beharrian, jendeak bere lan prozesua ezagutzeko aukera izan zezan. Zilarginen lana oso garrantzitsua izan omen da Bizkaia osoan eta Eloyren lan, marrazki eta lanabesekin batera Bilbon egindako artelanik zaharrena, XV. mendekoa, eta Bizkaian egin edo bertara ekarritako arte lan garrantzitsuak erakutsi zituzten.

Jende asko pasatu zen bertatik eta denek izan zuten Eloyren teknikak ezagutzeko aukera. Bere azken enkargua, hain zuzen, erakusketara joandako andre batek egin zion: "Galiziako Cabezaseko ama birjinarentzat koroa berri bat egiten nabil. Berak badu berea baina emakume horrek berria eskaini nahi dio amabirjinari. Koroa berriaren diseinua, nire lan guztiena bezalaxe, orijinala da."

Eloyk eskulturarekin parekatzen duen arte horren berezitasunik nabarmenena lana zuzentzeko ezina ei da. Eloyk Iturribideko tailerlean eskuz egindako mila zizel inguru ditu eta honelako bakoitzak brontzean edota zilarrean uzten

duen marka ezabaezina da. "Era-biltzen ditugun laminak oso finak dira eta zerbait txarto irteten denean ez dago atzera buelta egiterik. Ez da berdin gertatzen pinturan edo eskulturan, zilargintza kolpe bakarez osatzen den artea da."

Hainbeste behar ordutan sortutako lanak Iturribide 51ko tailer eta erakustokian gordetzen ditu Garcíak. Gustura erakusten ditu mailuz landutako kutxak, brontzez eta zilarrez egindako erliebeak, argazki markoak, eskulturak,... Orain tailerra hustu eta bere lanak saltzeko nahian dabilenean gogor egiten zaio batzuei agur esan beharra. Gehien aipatzen duena orain dela 50 urte hasi eta 2006ko maiatzean amaitutako kopa bat da.

Eloy Garcíak bere tailer eta erakustokian dituen lanak ez dira izango agian gaur egungoen gustukoak baina, seguruenik laster museoren baten ikusteko aukera izango badugu ere (badira batzuk bere artelanen bat eskuratzeko interesa agertu dutenak), merezi du Iturribide kale-tik pasatzea eta azken zilarginaren artelanak ikustea, bere kontuak entzuten ditugun bitartean.


JOSU MARTINEZ

"Martin telesaileko arduradunek konfiantza handia izan dute nigan"

Ikus-entzunezko komunikazioa ikasten du Leioan. Ikasketak amaitu aurretik lanean hastea lortu du eta, esan duenez, unibertsitatean hiru urtetan ikasitakoa ez da ezer ETBko 'Martin' telesailean hilabete gutxitan ikasitakoaren aldean. Euskadi Irratiko estudiantetik Martin telesaileko irratiko estudiara dabil. Eta azken honetan ikus dezakegu ostiral gauetan. Josu Martinez mahatsorri gaztea da.

*Testua: Eneritz Ibarondo
Argazkiak: Iñigo Azkona*

e
i
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a



D
A
K
A
R
K
A
I

Martin telesailean ikusi zaitugu azkenaldian. Gauza berria da zuretzat aktore lanetan ibiltzearena?

Bai. Ni ez naiz aktorea, eta hori holan da. Telesailekoei ere esan nien. Uste dut nire interpretazio artistikoetatik ere arin igarri daitekeela hori; ez naiz aktorea eta ez nuen inoiz pentsatu aktore gisa jardutea. Hau sortu zen beste kontu batzuetan nembilelako, irratian eta... beno batez ere irratian nembilelako. Patxo Telleriak, 'Martin' telesaileko gidoilarien buruak, ezagutzen ninduen, behin irratian kantatu niolako, berari eta Mikel Martinezi. Eta orduan, pentsatu zuen, nola irrati bat dagoen Martin telesailean, holako pertsonaia bat sartu ahal zela. Egun batean deia jaso nuen eta esan zidan: "badakizu zein den 'Martin' telesailea?" eta nik baietz, ikusi ez nuela ikusten, baina baietz, Jose Ramon Soroz eta hauena. Eta esan zidan ea aktorea izan nahi nuen. Denbora hartu nuen pentsatzeko. Tarte horretan 'Martin' en atal pare bat ikusi nuen, nondik nora zihoan jakiteko. Azkenean balantzan jarri alde onak eta txarrak, asko pentsatu... beno asko... pentsatu egin nuen. Ze beldur apur bat ere banintzen, esan dudana-gatik, ni ez naizelako aktorea, eta ez nekielako. Gauza bat egiten baldin baduzu, ondo egin nahi izaten duzu ez, eta gehiago telebista bezalako proiektzioa daukan medio batetan. Eta orduan, apur bat osaua naizenez, baietz esan nion.

Zelako pertsonaia da Olegario telesailean?

Nire pertsonaia apur bat martzianoa da, apur bat arraroa, ez da ohikoa. Nik uste dut horrelako pertsonaiarik ez dela izan, behintzat hemen inguruan. Telesailean bertan ere, askok esaten zidaten, jostunek eta, makillatzaileek eta... "ze berezia den zure pertsonaia". Nire pertsonaia da nire adin inguruko tipo bat, Martinen alaba ezagutzen zuena eta egun batean agertzen da tabernan, bizitzak ez duelako oso ondo tratatu. Galtzerdi saltzaile baten semea da. Bere aita oso tipo tristea da, eta horixe... han diru apur bat ateratzeko kantuak egiten ditu edozer gauzaren inguruan, graziosoak izan nahi duten kantuak, kantu satirikoak. Kontua da gustatu egiten zaiela irratikoei



eta hartu egiten dute. Eta hortik aurrera, bigarren mailako pertsonaia da, baina beno, jokoa eta ematen du, nik uste dut.

Zure pertsonaiarekin identifikatzen zara?

Nire ustez Patxo oso gidoilari ona da eta pertsonaia hori ez zuen sortu... Ez zitzaion okurritu pertsonaia eta gero bilatu zuen aktorea. Kontrakoa, topatu

zuen pertsonaia eta orduan... esan nahi dut, pertsonaia nigan oinarrituta dago. Nire ezaugarri batzuk eta nire ezaugarriak ez diren 'mamonada' batzuk gehiegikeriaz tratatuta daude komediako pertsonaia bat egiteko. Ni ere igual komediako pertsonaia naiz, apur bat, baina ez hainbeste. Askoz tontoagoa da pertsonaia hori ni baino; inork ez dio kasurik egiten, eta beno, niri kasu egiten didate, gutxitan baina

batzuetan kasu egiten dit jendeak. Eta nik igual ez daukat janzteko oso gustu ona, baina pertsonaiarena horriblea da. 80. hamarkadako hippy trasnotxatua ematen du... Nik espero dut oso oso antzekoak ez izatea, baina beno, nire fisikoa behintzat badauka, eta nik egiten ditudan gauza batzuk egiten ditu.

Eraginik izan al du zuretzat telebis-

tan agertzeak?

Ez, igarri ez dut igarri. Hori zen apur bat neukan beldurra ez? Nik uste dut azken boladan, askotan, gratuitoa dela jendearen aurrean agertzea, eta askotan nartzisismo puntu bat ere badela, exhibizionismoa. Badaude momentuak jende aurrean agertzen zarela eta justifikatuta dago merezi duen gauza bat egingo duzulako, baina beste askotan iruditzen zait egiten dugula nartzis-

mo puntu batengatik-edo. Ez dut esaten nik bakarrik, orokorrean. Eta hori gero eta gutxiago gustatzen zait. Baina, egia esan, ez du eraginik izan. Pentsatzen dut herri txiki batetan biziko banintz igual bai, ezagutuko ninduketela eta... Inoiz bai, ikusten duzu jendea gelditzen zaizula begira, eta esaten dizute zer edo zer...

Pantaila aurreko lanaz gain, beste

eginkizunen bat ere baduzu Martinen, ezta? Zein?


Bai. Patxok deitu zidanean, nik ez nuen batere argi ikusten aktore kontu hori eta esan egin nion. Berarekin eta Eneko Olasagasti zuzendariarekin geratu nintzenean, kontuaz hitz egiteko, eta zuzendariak ere ezagutu nahi ninduelako eta... Nik esan nien ez nuela nire burua hor ikusten aktore gisa, nik gehiago ikusten nuela nire burua beste zer baitetan. Eta esan nien gidoigile gusturago ibiliko nintzela. Orduan erantzun zidan, "bale, gidoigile ere sartuko zara. Baina aktore... bai, ezta?". Eta pentsatu nuen, beno, lan baten bila etorri naiz eta birekin alde egingo dut. Konfiantza handia izan dute nigan horretan ere, ez bakarrik aktore lanetan. Bi gidoi eman dizkidate. Bi denboraldi grabatu ditugu: abendura arte hamahiru kapitulu eta orain dela bi aste bukatu genituen beste hamahiru. Eta bi kapitulu egin ditut hor, bigarren denboraldi horretan, eta Patxok zuzendu dizkit. Hori da dinamika, zuk egiten duzu kapitulua, eta gidoilarien buruak egiten dizkizu kritikak... pilo bat ikasi dut. Oso esperientzia polita izan da, gustatu egin zaidalako... eta asko ikasi dut, hiru urtez unibertsitatean baino gehiago.

Aktore lanetan zabiltzan lehenengo aldia dela esan duzu. Telebistan bestelako lanak egiten dituzun lehenengoa ere bada?

Bai lehenengo aldia da, telebistan bai.

Eta beste komunikabideren batean? Euskadi Irratian ere bazabiltza...

Azken hiru urteotan Arantza Iturberen 'Arratsaldekoa' saioan kolaborazioa egiten dut astero, gitarrarekin, gaurkotasunari edo programan gonbidatzen duten jendeari kantu bat eginez. Apur



bat saturatuta nago, ze astero kantu bat egitea, nahiz eta nire kantuak ez diren oso politak eta oso landuak... Azkenean esaten duzu: 'beti ari naiz berdina egiten'. Baina oso gustura nago, pila bat jende ezagutzeko aukera eman dit, pila bat jende interesanteri barre eginazteko edo irribarre bat ateratzeko... Eta Arantza eta horiek zoragarriak dira, zaintzen naute... Pila bat aukera eman dizkidate. Ez daukat kexatzerik. Aurten Xabier Leteri, Lertxundiri eta Ruper Ordorikari kantatu diet, pasa den urtean Atxagari. Pribilegioa da, ez? Pribilegioa da han egotea. Gainera guztiek esaten dute Arantza dela gaur egun kulturaren dagoen elkarriketa egilerik onenetakoa. Eta duela hiru urte Garan hasi nintzen muturra sartzen. Orain Mugalari kultur gehigarrian eta Zazpikan erreportajeak idazten ditut. Oro har, euskal gaiei eta euskal kulturako gaiei lotuta, baina beno, ez bakarrik. Eta horrek ematen dit aukera. Asko ikasten ari naiz; ibiliz ikasten da oinez esaten da eta ni horrela ari naiz ikasten.

Amaitzeko... ba al duzu etorkizunerako ideia edo planik?

Beno, horrela gauza esangarrien artean, apirilean seguruenek, eta apirilean ez bada uztailen, Kubara joango naiz gidoi ikastaro bat egitera, Gabriel Garcia Markezen 'Escuela internacional de cine y television'era. Hilabete-edo egingo dut han. Horrela jarraitzeko asmoa daukat. Nik pentsatzen dut seguruenek horrela jarraituko dudala. 40 urterekin, hiru hilabetez lan egin eta gero sei langabezian; lan fijoerik ez dudala izango. Badakizu, dagoenean bonbon eta ez dagoenean, egon. Gero badauzkat proiektu pertsonalak. Zerbait atera nahiko nuke gauza guzti hauen inguruan. Baina beno, hori ikusiko da ze azkenean beti enkarguz goraino gabiltza, eta beti batek deitzen dizu lan hau egiteko, eta besteak ez dakit zer, eta gero ikasi behar duzu, eta hau eta beste... Horrela norberak gustura egingo lituzkeen gauzak beti geratzen dira azkenak.

Elurra zelan ikusten duzu, poz iturri ala arazo sortzaile?

AMAIA (SANTUTXU)
ETXEAN EGONEZ GERO, POZ ITURRIA DA NIRETZAT. NIRETZAT ELURRA BETI IZAN DA BELDURGARRIA, NAHIZ ETA BEHARRERZKOA IZAN.




ANGELA (URIBARRI)
NIRI ELURRA GUSTATZEN ZAIT ETXEAN GERATZEN NAIZENEAN. KALERA JOAN BEHAR BADUT EDO BIDAIA EGIN BEHAR BADUT, ARAZO HANDIA IZATEN DA.



ENCARNA (OTXARKOAGA)
ARAZO SORTZAILE. EZIN DITUT UMEAK ESKOLARA ERAMAN. HAIK LEHENENGO POZIK EGOTEN DIRA ETA GERO GAIXORIK. OTXARKOAGAKO ALDAPETAN ERE IZOTZA ARAZOA HANDIA DA.



IÑAKI (OTXARKOAGA)
NIRI ELURRA GUSTATZEN ZAIT BAINA ORAIN HOTZ NAIZ. ETA EUSKAL HERRIAN UR ASKO BEHAR DUGU, URTEGIAK HUTSIK DAUDELAKO.



MERTXE (OTXARKOAGA)
ETXEAN BANAGO, POZ ITURRI IRUDITZEN ZAIT BAINA ETXETIK IRTEN BEHAR BADUT ARAZO HANDIA DA NIRETZAT.



NEKANE (OTXARKOAGA)
HIRIAN ARAZOA DA, EGUNSENTIAN LANERA BAZOAZ ALDAPAK ELURREZ BETETA EGOTEN DIRA ETA ARRISKUTSUA DA. LEIHOTIK ONDO IKUSTEN DA, UMEAK JOLASTEN DUTE, URTEGIEK ETA MENDIEK UR ASKO HARRAPATZEN DUTE ETA HORI ONA DA.

ROSA (OTXARKOAGA)
POZ ITURRI. ETXEAN BANAGO, OSO POZIK. UMEENTZAT OSO POLITA DA ETA GURE URTEGIENTZAT OSO ONA, UR ASKO BEHAR DUGU ETA.



Zortzi galdera labur

Liburu bat?: 'Teo Zirkuan'.
Film bat?: 'La Sirenita'.
Kantu bat?: 'Asturias patria querida'.
Musikari bat?: Isabel Pantoja.

Hobby bat?: Frodo Bolson (Hobbit bat da!)
Amets bat?: ...Arzallus.
Mendia ala hondartza?: Taberna (eguzkitsua eta aire garbiduna)
Irratia ala telebista?: BERTON.

PRESOAK KALERA AMNISTIA OSO!

Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak

Garraioak

Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

A K A R K A

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Sorgintxuloren itxieraren aurka protestatu izanagatik seina hilabeteko kartzela zigorra lau gazteri

Denetara 78 lagun auzipetu dituzte gaztetxearen alde agertu izanagatik

Bilboko epaileak sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri die Sorgintxuloren itxieraren kontra protestatzeko 2004ko azaroan Santutxuko batzokiaren aurrean eserialdia egin

zuten lau gazteri. Batek, gainera, 60 euroko isuna ordaindu beharko du, irainak esan zituelakoan. Hori izan da 78 lagun auzipetu dituen epaiketa sortatik azkena.

Sorgintxulo gaztetxearen itxierak bazterrak nahastu zituen Santutxun. Hala aurreko nola hurrengo egun eta asteetan hainbeste protestaldi egin zituzten gazte multzo handiek Bilboko Udalak hartutako erabaki horren kontra. Protesta horietan parte hartu izana leporatuta, 78 lagun auzi bidean jarri zituzten. Harrez gero, hamaika epaiketa egin da gazteen kontra.

Azkenaren sententzia urtarrilaren erdian jakinarazi dute. Lau gazterentzat 31 urteko kartzela zigorra eskatzen zuen fiskalak Santutxuko batzokiaren aurrean eserialdia egin izanagatik. Bakoitzarentzat zortzina urte, hain zuzen, batentzat izan ezik. Fiskalaren usteak, ustel. Epaileak seina hilabeteko kartzela zigorra ezarri die gazteei eta bati 60 euroko isuna. Horixe izan da dena.

Izan ere, gainerako epaiketetan ere berdin antzean gertatu izan da. Gazteak absolbitu egin dituzte, deliturik egin ez dutelakoan. Edo bestela, zigortxiki-txikiak jaso dituzte. Gainera, auzipetuetako batzuk adin txikikoak izan dira.

GAZTE ASANBLADA
Sententziaren berri eduki eta lasterrera Santutxuko Gazte Asanbladak

zilegitasuna, gazteok auzoaren mesedetan eta beharrianetan oinarrituta egin baitugu lan".
Gazte Asanbladaren ustez, epaiketen helburua okupazio mugimen-

kriminalizatzen saiatzeagatik, eta gogorarazi nahiko genuke Sorgintxulo ez zela 2004ko abenduaren 16an hil, baizik eta gero eta indar gehiagoz lanean jarraitzen dugula".



bere balorazioa plazaratu zuen. Gazteen iritziz, "argi geratu izan da gure proiektuaren eta ekintzen


dua desaktibatzea zen, "baina ez dute lortu eta ez dute lortuko". Bere ziki larria izan da, gazteen aburuz, azken epaiketa hori, "bere muinean muntaia polizia baino ez dagoelako. Lau gazte zortzi urterako kartzelara bidali ahal zuten".
Azken hilabeteok artega eman badituzte ere, "ez dugu onartuko beraien iruzur eta joko zikinaren bitartez gure lana inpunitate osoarekin epaitzen jarraitzea".

Azkenik, gazteok Bilboko Udala jo dute epaiketa sorta horren arduraduntzat, "gure lana desitxuratu eta



KARMELOKO APARKALEKUAREN SAKONA.-

Karmelo kaleko aparkalekuko lanek zulo itzela eragin dute honez gero. Zaldainetik pasatzen direnek bertako lau solairuak bere baitan hartzeko indusketa ikaragarria egin dutela ikusten dute egunotan. Ez luzerako, ostera, laster hasiko dira-eta estaltzen.



TOMAS ONDARRAREN ERAKUSKETAK.-

Begoña eta Otxarkoagako auzo-etxeetan urtarrilean zehar Tomas Ondarra artistaren erakusketak eduki dituzte ikusgai. Bertan Bilbon baino topatu ezin diren hainbeste gauza erakutsi dituzte: Azulitoak, funikularra, Begoñako Amatsu, karolinak eta beste hamaika kontu.



PRESOEN ALDEKO GOSE GREBA.-

Ekimen ibiltariaren azken txanda Bilbon egin zuten urtarrilean. Astebetez lagun talde bat baraurik egon zen presoek eskubideak aldarrikatzeko. Urtarrilaren 19an Boluetara hurreratu ziren, 'El Correo' egunkariaren aurrean euren salaketa aldarrikatzeko.

ASTE SANTUA

SALOU	118 Euro
LONDON	529 Euro
TUNEZ	276 Euro
TENERIFE	284 Euro
LANZAROTE	294 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak
GRUPO STAR VIAGES
www.ibiltari.com Tel. 94 473 00 45 Fax 94 412 07 26 48004 SANTUTXU - BILBO

KAIKU
Munduko Herrien Btxea
Arzuaga 1 Santutxu

ADI
ASESORIA FISCAL - CONTABLE - LABORAL - JURIDICO - MERCANTIL
Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

OLATZ KARRO ATXILOTU DU ERTZAINZAK.-

Urtarrilaren 19an Espainiako Auzitegi Gorenak Jarrai-Haika-Segi gazte erakundeak terrorista izendatu eta sumarioan auzipetutako gazteei seinatu urteko kartzela zigorra ezarri zien. Haien artean Santutxuko Olatz Karro. Urtarrilaren 20an, goizaldeko ordu biak aldera Ertzaintzak Murgian atxilotu zuen. Olatzek lau urte eman zituen preso, 2000ko martxotik 2004ko martxora. Momentu honetan, Langraitzeko espetxean daukate Karro. Auzitegi Gorenaren erabakia ezagutu eta berehala, hasi ziren mobilizazioak Euskal Herri osoan zehar. Ostiral gauean, kaleak moztu zituzten hainbat gaztek Santutxu eta Uribarrin. Larunbatean, manifestazioa egin zuten Santutxun. Eta igande iluntzean berriz, Santutxuko PSOEren egoitzara sartu ziren hainbat gazte "PSOE errudun" oihukatuz.



AUTOAK PLAZAREN ERDIAN.-

Begoñako elizaren aurreko plazako zati bat autoen esku gelditu da azkenaldion. Kotxeak oinezkoentzat gordetako aldera sartu izaten dira ezelango oztopo barik eta bertan egoten dira aparkatuta ibilian dabiltzanen joan-etorriak oztopatzen. Argitu beharko da hori plaza ala aparkalekua ote den.



TXURDINAGAKO ZAHAR ETXEA.-

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintzako buru Juan Maria Aburtok iragarri duenez, Txurdinagako IFASen egoitza hiru zereginetarako egokituko dute hiru urte barru. 2009an ehun lagunentzako egoitza izango da, baita burmuina kaltetutako lagunentzako eguneko zentroa eta gutxiagotu fisikoentzat zaintzapeko 20 apartamentu eskainiko ditu. Denetara, 17,8 euroko inbertsioa beharko da eta gaur egungo eraikinaren ondoan beste bat altxatuko dute.

Umeentzako ikuskizunak Begoñako Udaltegian

'Ikusi eta ikasi' kanpaina asteartero helduko da Begoñako udaltegira

lazko arrakastaren arrastotik Bilboko Udalak 'Ikusi eta ikasi' kanpaina ekarri du aurten ere. Otsaila eta martxoan zehar umeentzako ikuskizunak programatuko dituzte euskara hutsez. Eszenatoki printzipalak La Bolsa, Deustuko Bidarte eta Begoñako Udaltegia izango dira. Azken horretan martitzenetan egingo dituzte.

Ume guztiak sartu ezinik egin zituzten iaz 'Ikusi eta ikasi' kanpainako ekitaldi gehienak. Hain arrakastatsua izan zen. Aurten ere bide horretatik joko duelakoan, Bilboko Udalak astean hiru ikuskizun programatu ditu otsaila eta martxorako. Iaz bezalaxe, Zazpi Kaleetako La Bolsa jaure-



Iazko saio bat Begoñako udaltegian.


gia, Deustuko Bidarte eta Begoñako Udaltegia dira aukeraturako lekuak.

Begoñako Udaltegia asteartetan izango dira ekitaldiak, arratsaldeko seietan hasita. Urtarrilaren azken egunean Erix magoak zabaldu zuen egitaraua eta, behin otsailean sartuta, hilaren 6an Antton Irusta ipuin kolatalariak 'Lau haizetara kontari' ekarriko du. Hurrengo astean, hilaren 13an Potxin eta Patxin pailazoak 'Indioen lurraldea' ikuskizunaz azalduko dira. Eta otsailaren 20an Antzezkiuna taldea 'Josetxu eta Ortzadarra' erakutsiko dute.

MARTXOA

Martxoko martitzenak ere euskaraz etorriko dira Begoñako Udaltegia. Hilaren 6a Trikuharri antzerki taldearen hitzordua izango da eta astebete geroago, hilaren 13an alegia, Niko eta Periko pailazoaren bisita edukiko dute ume mahatsorriek. Martxoaren 20an Bihar txotxongilo taldearen esku geldituko da saioa.


'Ikusi eta ikasi' kanpaina martxoaren 31n amaituko da, Bilboko Zabalgunean arratsaldeko bost eta erdietan hasiko den jaialdiarekin. Auskalo taldea eta Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira umeen gozagarri egun horretan.



HAZI ETA HOBETU



Euskadi



BEGOÑAZPI IKASTOLA

Jesús Galíndez, 15 • 48004 BILBAO
Tel 94 400 53 00 - Fax 94 400 53 01

www.begonazpi.org

Eléctrico eta industrial instalazioak

Proyectos y Presupuestos

J. Ruiz Instalador Autorizado

*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo
*Porteros automáticos y videopuertas
*Aire acondicionado

Juan de Gissola nº9 Lonja 48004 Bilbao Fax: 944111652-TF: 656703855

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irrátia

www.bilbohiria.com

KARMELO IKASTOLAN UMEEK OLGETAN EUSKARAZ EGITEKO IKASTEN DUTE

'Euskaraz mintza' programa garatzen dute Sortzen-Ikasbatuazzen eskutik



Karmelo ikastola da, Deustuko ikastolarekin batera, 'Euskaraz mintza' programan murgilduta dagoen Bilboko ikastetxe bakarra. Umeek euskaraz modu naturalean egiteko erraztasunak ematen ditu. Horretarako, euskal olgeta tradizionalak erabiltzen ditu.

Gaur egun ume mahatsorri gehienek euskaraz ikasten dute, D erduan. 'Kokatu', 'zatiki', edo 'egitura' bezalako berbak erabiltzen dituzte euren ikasketetan. Ikasliburuetakoa hiztegia modu errazean darabilte. Baina zer edo zeren falta igartzen zaie, nabarmen. Gurean euskara ez dago normalizatuta. Horren ondorioz, umeek eguneroko bizimodua erdal munduan egiten dute eta erdaraz izaten dira ikasgelatik kanpoko ordu gehienak. Erdaraz jokoak, erdaraz lagun arteko txantxak eta berbetak, erdaraz euren harreman gehienak.

Euskalduntzea irakaskuntzaren esku gelditu izanaren ondorioa da hori. Umeak ez dira trebatzen hizkuntza modu naturalean erabiltzen gelatik kanpoko jardunetan. Sarritan ez dakite zelan esan modu jatorrean kaleko bizitzako esaldirik normalean. Eta horrek dakar umeek kasurik onenean euskara mordoiloa -euskañola- erabiltzea, edo, sarriago, erdarara jotzea.

Problema horri aurre egiteko asmoz, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak -sare publikoko ikastetxeak batzen ditu- 'Euskaraz mintza' programa abiarazi zuen 2000 urtean Basaurin.

Bertako Ariz ikastolan frogatu ostean, hurrengo ikasturtean beste eskola eta ikastetxe batzuetara zabaldu zuten. Euretako bat Karmelo ikastola izan zen.

Harrez gero, Santutxuko ikastolan umeek beste aukera bat daukate euskaraz egiteko.

'Euskaraz mintza' programa errealitate soziolinguistikoko horretatik hasi da. Gainera, irakasleak galtza bete lan ibili ohi dira, euskarak leku gutxi dauka irakaskuntzan (D erduan be bai) eta sarritan maisu-maistrak eurak ere euskaldun berriak izaten dira. Horregatik, hiz-



kuntzaren erregistro horiek umeei transmititzea ez da batere erraza. 'Euskaraz mintza'k olgetaren bidea hartu du seinek euskaraz modu naturalean jardun dezaten.

JOLASEAN

Karmelo ikastolan 'Euskaraz mintza' programa Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin erabiltzen dute. Egunean monitorea ordu erdi egiten du ume txikiak eta beste horrenbeste nagusiagoekin. Jolas-orduan izaten da. Euren olgetan egoten da, euskal jatorrizko jolasak erakutsiz edo bestelako kontu txikiak irakasten. "Kontua da -azaldu du Ludi Vigerak, 'Euskaraz mintza'ko arduradunak- jolas gehienak erdaraz izaten direla, edo, euskaraz izatekotan, itzulpenak direla. Umeek badakite erdaraz ere badirela eta horietara jotzen dute".

Horregatik, programa honetarako euskal jolas eta olgeta tradizionalak erabiltzen dituzte, euskaraz baino ez direnak.

Emaizak positiboak direlakoan daude hala programako arduradunak nola ikastolakoak. "Normalean,

LHko 2. maila arte gogo onez ibiltzen dira umeak. Baina 5. eta 6. mailakoek derrigorrezko lez ikusten



dute eta horregatik bestelako alternatibak bilatu behar izaten ditugu: pin-pon, futbola, ...".

Gurasoen inplikazioa bilatze aldera, ikastaroak eta liburuxkak eskaintzen dituzte, joko, kantu eta euskal tradizioko gainerako kontuak eskura ipintzeko, baita erdaldunen-tzat ere. Karmelon aurten ez dira egiten ari, baina aurreko urteetan

egin izan dituzte, batez ere ume txikien aita-amentzat.

Umeek euskara gehiago egiten duten? "Monitorea edo irakaslea aurrean daudela, bai. Inork kontrolatu barik, zailagoa da. Dena dela, gure poza da umeak jolas horietan dabilzala ikustea eta euskaraz egiten dutela", aitortu du Ludi Vigerak.

Protestak darrai

Urtarrilaren 24an Karmelo ikastolak Eusko Jaurlaritzaren aurrera eramane zuen bere protesta. Gran Via 85aren parean elkarretaratzeara egin zuten, ikastola berria eskatzeko. Tere Omagogeaskoa zuzendariak aitortu du "batzarrak egiteko eta bai, deitu egiten gaituzte. Baina guk nahi dugu jakin DBHrekin zer gertatu behar den, gure etorkizunerako erabakigarria delako".

Honez gero hasiak dira Larreagaburun bideak egiten. Badirudi goialdean aparkalekua atontzekotan dabilzala. Parkeko proiektua -hari estu lotuta dago ikastola berria- geldirik eman ditu azken urte biak baina oraintsu mugitzen hasi da. Hala ere, ez da argitu oraindik zer egingo duten ia 25 hektareako eremu horretan.

Sastreria
EDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
Tfnoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE

GABRIEL RESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

O.P.E.: 029/97
94 412 82 74

MESÓN
GURETXE

Santutxuko poteo gunean

SEIEHUN KORRIKALARI BILDU ZITUEN SEI IZAR HERRI KROSAREN 29. EDIZIOAK

Josu Amutio eta Tere Sanz suertatu ziren irabazle

Eguraldi atseginak lagunduta, giro bikaina eta partehartze handia izan ziren Santutxun Errege Eguneko goizean, Herri Krosaren ekitaldi guztietan gertatu ohi den bezala. Nagusientzat, zazpi kilometro eta erdiko zirkuitua zegoen prestatua baina auzoan egiten ari diren obrek eraginda, azken orduan laburtu egin zuten antolatzaileek Santutxu eta Txurdinagan zehar egin beharreko ibilbidea.

Testua: Dabi Piedra
Argazkiak: Iñigo Azkona

Adin guztietako jendea ikus zitekeen Iturriaga kaleko irteeran, batzuk marka ona egiteko asmoarekin eta beste batzuk Gabonetan luditutako kiloak galtzeko esperantzaz. Nagusien kategorian ia seiehun lagun irten ziren, hasieran denak tropelean, baina helmugara bakar-bakarrik iritsi zen Josu Amutio irabazlea, 18 minutu eta 10 segundoko denbora eginez. Minutu erdi gehiago behar izan zuen Mikel Fernandez de Ganboa bigarrenak. Emakumeetan irabazlea Tere Sanz izan zen eta 40 urtetik gorakoen kategorian Eduardo Hernando ibili zen azkarren. 60 urtetik gorakoen arteko lehenengoarentzat ere egon zen saria, Jose Luis Ahedok lortu zuena. Gainontzeko partehartzaileek ere, ordea, ez zuten sari makala izan



bide ertzean eta helmugan bildutako jendearen animuak eta txaloak entzunda eta horrez gain, kamiseta bana ere jaso zuten denek.

UMEAK BE BAI
Nagusiek baino ordu erdi lehenago, umeek ere izan zuten Santutxuko Herri Krosaren parte hartzeko aukera, bi kilometroko ibilbidea prestatu baitzuten antolatzaileek haurren kategorietarako. Hamar urtera arteko multzoan, Cristina Santamaria eta Imanol Morante izan ziren azkarrenak; 10 eta 14 urte bitartekoetan, Irene Santamaria eta



Jon Grence. Hala ere, helburu nagusia, bildutako neska-mutil guztiek (70 inguru) ondo pasatzea eta kirola egitea zen.

Auzoko Familien Elkarteak antolatzen duen Santutxuko Herri Krosa, azken urteetan Sei Izar izenarekin ere eza-guna, 29. ekitaldira iritsi da aurtengoarekin. Beraz, datorren urtean 30. urteurrena ospatuko du.



LUIS BRIÑAS-SANTUTXU
ESKOLA ETA INSTITUTUA

HIRUELEDUNA
DBH
EUSKARA INGELESA GAZTELANIA

- * Jolastoki zabalak
 - * Bazkaria bertan prestatua
 - * Musika eta ingelesa 4 urtetik aurrera
 - * Euskararen erabilpena bultzatzeko proiektu bereziak
 - * Ekintza osagarriak kultura arloan
 - * Eskola irratsaioak
 - * Laguntza eta orientabidea irakasle espezializatuekin
 - * Eskolaz kanpoko ekintzen aukera zabala
 - * Ingurumena lantzeko proiektua (EA21)
 - * Koordinazioa eskola eta institutuaren artean
- Haur hezkuntza:
Menendez y Pelayo 23
tfnoa: 944332298
- Lehen Hezkuntza eta Institutua
Iturriaga 58
tfnoa: 944111181 (LH) 944734431 (DBH)

B A I ! B A I ! B A I !

B A I ! B A I ! B A I !

OLIBA GORRIAK TALDEAK BERE BI DISKOAK BATERA AURKEZTEKO BIRA HASI DU

Urtarriletik martxora arte martxan da 'Bake faltsuari hagin zorrotza'



Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Oliba Gorriak

Abenduan 'Bake faltsuari gerra!' izeneko bigarren diskoa kaleratu eta urte hasieran bi diskoen aurkezpena egiteko birari ekin diote. Markinar gazte hauen artean Unai Bergara mahatsorria -bateria jolea- aurkitu dugu eta berarekin bildu gara Oliba Gorriak proiektuari buruz hitz egiteko. Unai dioenez, "zuzenekoetan taldearen benetako izaera ikusten da". Arte Ederretako ikasketak amaitzean duen Zurbarango gazteak tarte handia dedikatzen du Markinara joan- etorrietan punk-hardcore taldean aritzeko.

Oliba Gorriak taldea 2001ean sortu zen eta hasieran lagun arteko kontua bazen ere, lehen urratsak eman eta azkenean jendartearen alienazioaren aurrean bitarteko komunikatibo propio bihurtzea lortu dute. Taldekoen esanetan "ahotsik gabekoen ahotsa, ideien gudan murgiltzeko deia".

2005eko uztailean taldeak 'Ogi gogorrari hagin zorrotza!' lehen diskoa kaleratu zuen. Jarraian taldeko abeslari Eneko atxilotu zuten, bertan behera utzi behar izan zuten. Baina 2006ko martxorako berriro ere, gerrilla musikari ekin zioten MusikHerria diskoetxearentzat propio sortutako abestiarekin. Ondoren, 'Bake faltsuari gerra!' diskoa kaleratu dute.



Unai bateria jolearen hitzetan "lehen diskoan punk-ska jotzen genuen gehien bat, tronpetak ere bazeuden eta herrikoia goa zen. Disko berria indartsuagoa da, punk-hardcore da eta ildo honetan jarraitzeko asmoa dugu. Lehen diskoak taldearen izaera islatzen du eta bigarren honetan gure kezka argi agertzen ditugu".

MUSIKHERRIA
Oliba Gorriak taldean kantaria Eneko da, Ezkerra eta

Koldo gitarrak, Egia baxua eta Unai bateria jolea. Gaur egun munduak eta Euskal Herriak bizi duen errealitateari so egin eta eguneroko bizitzan eragiten gaituzten gaiei bizkarrik eman gabe, errealitate gordinaren aurrean mezuak, ideiak eta burutapenak lau haizetara zabaltzen dituzte gazte hauek.

Talde honek gainera, dagoeneko hainbat bildumatan hartu du parte (Musikagida 2006, Musika aske mundurat!, MusikHerria...). "Musika talde bat baino gehiago gara, beste eragile bat gara eta gure proiektua ez da bakarrik musika, jendeari mezua helarazi nahi diogu", zehaztu du Unai.

'Bake faltsuari gerra!' abenduan kaleratutako diskoa "zapalduen bozgoragailua" da taldekoentzat. Urtarrilaren 26an 'Bake faltsuari hagin

Unai Bergara bateria jotzen



zorrotza 07' birari hasiera eman diote eta Unai dioenez, "abeslariaren atxiloteta zela eta lehen diskoa ez dugu oraindik aurkeztu, beraz, oraingoa bi diskoen nahasketa da biran aurkezten duguna". Taldeak bi

urte eman ditu kontzerturik eman gabe eta Unai 2005ean hasi zen beraiekin jotzen.

KONTZERTUAK

Bira hau bost kontzertuk osatzen dute, lehen biak (Durangoko Plate-ruean eta Bonberenean) jadanik izan dira baina oraindik beste hiru lekutan joko dute. Otsailaren 22an Gasteizko Gaztetxean, martxoak 9an Ziburun eta 10ean Zizurko frontoian (Nafarroan). Aukera hauekin guzti-kin norbaitek ezin izan baditu ikusi, jakin egizue martxoaren 31n Erromoko Itzulbaltzeta gaztetxean duzuela aukera.

Oliba Gorriak taldekoek entseguak Markinan egiten dituzte, bertako Udalak utzitako lokaletan eta Unai berak diseinatutako web orria ere ikusgai duzue mundura.net/olibagorriak helbidean.

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe

Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

GOJIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

I D E A K

I D E A K

horoskopoa


Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.

Negar baten oraindinoko? Supera egin behar dozu hori, ume txiki-txikia emoten dozu eta.


Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.

Sekulako torpedoa erosi dozu e? Baina badakizu, geldiro-geldiro joan behar dozu. Osterantzean, multea bidean eta zaratea etxean.


Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.

Negua ailega da. Benetakoa. Eta ez dakigu noiz joango dan. Beraz, gorde bainujantziok eta eguzkitako krema poteak...


Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.

Poteoa gitxitan egiten dozu azkenaldion, gitxiegitan. Gehiago egitea komeni jatzu, zuritoen prezioekin ez ikartzeko gero...


Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.

Saltsa guztietako perexila zara, duda barik. Baina kontuz, holan ibili ezkerononoz jan egingo zaitue eta.


Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.

Interneten ez da ligaten. Beste mito bat baino ez da, erre-bueltan hil zan autoestopistarena lakoa.


Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.

Animoa eta aurrera. Aukerak ez dira faltako eta zeu, benetan nahi izan ezkeron, onena emoteko gauza zara.


Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.

Gure rolloa eskola egunetan piper egitea da! Horixe baietz! Ez etsi, lagun, azkenean garaipena gurea izango da eta.


Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.

Noiztik ez dozu egiten? Ez da izango!! Bihar bertan egin behar dozu eta gero kontu. Gu be aspalditik egin barik gagoz eta...


Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.

Gazte gara gazte, ta ez gagoz konforme! Hori kantatu behar dozu taberna zarratuten doazen bakotxean?


Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.

Angulak karu-karu dagoz bai. Baina San Anton azpian gauero farologaz paratzea ezin lei ideia ona izan. Ondo pentsau.


Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.

Zu zara nagusia! entzuten da bazterrik bazter. Zeozergaitik izango da, ezta?

agenda

OTSAILAK 3

JOSELE SANTIAGO.
KONTZERTUA. SANTANA27
ARETOAN. 22:00ETAN.

OTSAILAK 4

BEGOÑAKO SANTA AGEDA.
GOIZEKO 10ETAN
GARAIZARREN (TXURDINAGA)
ETA ONDOREN
ARBOLANTXARA. BAZKARIA
JOSETXU JATETXEAN.
ASAPALAK ANTOLATUTA.

OTSAILAK 9

HERRIRA PLATAFORMAREN
MANIFESTAZIOA.
ARRATSALDEKO 8ETAN
RITXI PLAZATIK.

OTSAILAREN 9-11

DEUSTUKO INAUTERIAK.

OTSAILAK 11

SORATXIPI (1.069M) ELTZABURU
(ULTZAMA-NAFARROA).
MENDI TXANGOA.
SANTUTXUKO MENDIZALE
TALDEA.

OTSAILAREN 12-13

'ARTEA'. ANTZERKIA.
ARRIAGA ANTZOKIA.

OTSAILAREN 16-20

BILBOKO ARATUSTEAK

OTSAILAK 25

SANTUTXUKO INAUTERIAK

OTSAILAK 27

ANDU LERTXUNDIK 'IHES
BETE' AURKEZTUKO DU.
ARBIDEA KALEKO EUSKALTE-
GIAN. 20:00ETAN. ASAPALAREN
IRAKURLEAREN TARTEA.

**IKUSI
ETA
IKASI**

*Magia, Antzerkia,
Txotxongiloak, Ipuin
kontaketak...*

*Bilboko
haur kultur
zirkuitua*

Otsailak 1 Osteguna	KORRI ETA XALTO PAILAZOAK, 18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean
Otsailak 3 Larunbata	GORAKADA ANTZERKI TALDEA, 11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegian
Otsailak 6 Asteartea	ANTTON IRUSTA ipuin kontalaria, 18:00etan, Begoñako udaltegian
Otsailak 7 Asteazkena	OIHULARI KLOWN ANTZERKIA, 18:00etan, Errekaldeberriko eskolan
Otsailak 8 Osteguna	ATIKUS ANTZERKI TALDEA, 18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean
Otsailak 10 Larunbata	KIKI ETA KOKO PAILAZOAK 11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegian
Otsailak 13 Asteartea	POTXIN ETA PATXIN PAILAZOAK, 18:00etan, Begoñako udaltegian
Otsailak 15 Osteguna	KANDELEN ARGIPKAN, ipuin kontaketa 18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean
Otsailak 17 Larunbata	ANE MONNA, OSKOLA ETA KARRAMARROI TALDEA, 11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegian
Otsailak 20 Asteartea	ANTZEKIZUNA TALDEA, 18:00etan, Begoñako udaltegian
Otsailak 22 Osteguna	BERBARO ANTZERKIA, 18:00etan, Bilboko La Bolsa eraikinean
Otsailak 24 Larunbata	AINHOA IRAZU, ipuin kontalaria 11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegian
Otsailak 27 Asteartea	MAITE FRANKO, ipuin kontalaria 18:00etan, Begoñako udaltegian
Otsailak 28 Asteazkena	GOLOKA ANTZERKI TALDEA, 18:00etan, Bilboko Tibolí eskolan

Antolatzailea:

Babeslea:

Laguntzaileak: